



LITTORAL BASQUE
EUSKAL ITSASBAZTERRA




eke icb



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZLE egonaldia NEKaTOENEan 2014.eko urrian: Aitzol LASA



EGITASMOA

NEKATOENEA egonaldian, Aitzol LASAk matematikaren dibulgaziorako nobela egingo du, Argitxu Azkarrena pertsonaiaren bitartez. Matematikaren eta logikaren inguruko hainbat gai dibulgatuko dira abentura nobela batean, beti ere euskal irakurlearentzat ulergarriak eta identifikagarriak izango diren erreferentzia erabiliz. 12 eta 16 urte bitarteko nerabeei zuzenduriko liburua izango da. Narratzailearen testua hizkera batuan emango den arren, liburuko pertsonaiek egungo gazteen hizkera baliatuko dute eta pertsonaietako bakoitza haren hizkeraren bidez identifikatuko da.

Zientzia eta Gazte literatura

Zientzia gaztetxoei hurbiltzeko testu ez akademikoak gutxi dira hizkuntza guztietan, eta are gutxiago euskarazko literaturan. Aldiz, literatura tresna erabilgarria da zientzia gaztetxoei hurbiltzeko, eta, aldi berean, zientzia gaiak sartuz testu literarioetan, testu horiek aberastu egiten dira edukiz eta espektroz. Izan ere, zientzien eta letren arteko tartea handia zen garai batean, eta jarraitzen du izaten, besteak beste eskoletan eskatu egiten zaielako ikasleei ibilbide bat hauta dezaten.

Fenomeno horri irtenbidea eman nahian, Elhuyarrek gaztetxoentzako zientzia-literatura atala sortu zuen bere CAF-Elhuyar sarietan. Tamalez, kategoria horrek hiru urtez besterik ez zuen iraun eta liburu bakarra kaleratu zen sail horretan, *Hodeietan* nobela, hain zuzen ere. Liburu hartan, irakurle gaztearen identifikazioa lortu nahian, 17 urteko lagun-talde batek zientziarekin duen harremana lantzen da, maitasun istorio bat lerro hartuta. Akzioa Iruñean gertatzen da eta pertsonaiek euskararen erregistro informala darabilte. Liburu hori bakarra da, zientzia gaiak lantzen dituzten, nerabeei zuzendurik dauden eta euskaraz publikatu diren gainerako lanak itzulpenak dira.

Nor da Argixu Azkarrena?

Nafarroako Unibertsitate Publikoko matematika sailean, Logika irakasgaiko Luis Ezkerro adiskideak eskatu zidan pertsonaia euskaldun bat sor nezala, problemetako pertsonaia gisa eta azterketetan erabiltzeko. Hor sortu zen *Argixu Azkarrena, logikaren txapelduna*. Ondoren, gure Argi neskatilak saltoa eman zuen Nafarroako Matematikako Olinpiadara, eta DBHko ikasleen artean egin zen ezagun. Bada garaia nobelarako jauzia egin dezan.

JARDUERA IKASLE GAZTEEKIN

NEKaTOENEako egonaldi programaren barnean, eskualdeko herritarrei artista gerturatzeko ahalegin bat egiten da. Programa horietako batzuetan, ikastetxeekin ere egiten dute lan artistek. Literatur egonaldia egiten duen artistaren kasua adibidez. Urtero etortzen den idazleak aukera izaten du haur edota gazteekin lan egiteko.

2014ean C PIEk sinatu dugun CLEA hitzarmenaren ondorioz, NEKaTOENEak ere parte hartuko du EAC-AKHan, Hirigunearen deialdiari erantzunez, Aitzol Lasak ikastetxe batekin ikasturtean zehar lan egiteko aukera eskaini du.

Honelakoa izanen da bere proposamena: lehenengo eta behin, testuari buruzko tertulia bat egingo da Abbadiako Eremua ezagutzera etorriko diren ikasleekin, eta, horren ondotik, literatur tailerrak proposatuko zaizke ikasleei. Tailer horietan, zientziaren eta letren arteko lotura egingo da. Alde batetik, fikziorik gabeko zientziaren ezaugarriak landuko dira, eta bestetik, zientzia-fikzioaren bereizgarriak emango dira. Amaieran, ikasleei eskatuko zaie haien produkzioak egin ditzaten.

AITZOL LASA nondik norakoa



Matematikan lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean (2005), Erasmus mugikortasun beka Kopenhageko *Institut for matematiske fag* (2003) eta Bigarren hezkuntzako irakasletza unibertsitate-masterra (2011), Lasa irakasleak ederki ezagutzen du irakaskuntza sistema eta esperientzia handia du matematikaren dibulgazioan.

Elhuyar aldizkarian hasi zuen zientzia ezagutarazteko ibilbidea, erredaktore gisa. Irratian eta telebistan kolaboratu du, besteak beste, *Norteko Ferrokarrilla* (Euskadi Irratia), *Arratsalde puntu on* (Euskalerrria Irratia) eta

Teknopolis (ETB) saioretan. Bere irrati programa zuzendu zuen, *Plano Konplexua*, esperimentu hark zientzia gerturatu zuen irrati libreterara, irrati komunitarioetara eta sare sozialetara. 2012an publikatu zuen *Hodeietan*, gazteentzako bere lehen dibulgazio nobela.

Matematika irakasle gisa, hurbiletik ezagutzen ditu irakaskuntza sistemaren etapa guztiak. Irakasle izan da Ikastetxe unitarioetan (3-16 urte), Derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutuetan eta Batxilergo institutuetan. Horrez gainera, zuzendaritza taldeetan parte hartu du.

Aktiboki parte hartzen du kongresuetan (*Acta Latinoamericana de matemática educativa*, *Investigación en educación matemática*, *Congreso virtual internacional de enseñanza de las matemáticas*, *International GeoGebra conference*), jardunaldietan (*Jornadas para el aprendizaje y la enseñanza de las matemáticas*, *Jornades de l'Associació Catalana de GeoGebra*, Matematikaren irakaskuntza eta ikaskuntzarako Nafarroako jardunaldiak, *Jornadas virtuales en didáctica de la estadística, probabilidad y combinatoria*, *Día de GeoGebra*) eta sinposioetan (*Sociedad Española de investigación en educación matemática*), eta periodikoki publikatzen ditu artikuluak ikerketa aldizkarietan (UNO, Hik Hasi, *Revista do Instituto GeoGebra International de Sao Paulo*, *Cónica*, *Educación Matemática*, *Épsilon*, *Biribilka*). Horrez gainera, etengabeko trebakuntza ikastaroak ematen dizkie irakasleei (CAP, GARATU, UEU, Ikastolen Elkarte).

Gaur egun, geometria dinamikoko softwarearen erabilera ikertzen du irakaskuntzan Euskal Herriko GeoGebra Institutuko zuzendaria da.

LITERATUR SARIAK

2009 *Udako arratsalde bat*. Barañain Hiria literatur lehiaketan lehengo saria, Aipa ditzagun emakumeak atalean.

2011 *Hodeietan*. CAF-Elhuyar saria.

2012 *Ostegunetan, pintxo eta potea*. NUPeko sormen sariak.

LIBURUAK

2012 *Hodeietan*. Elhuyar, 978-84-92457-21-2.

DIBULGAZIO ARTIKULUAK

2010 *Sormena Matematiketan*. Biribilka 8 (digital), 45-49, 1887 -8350. Hemen: <http://issuu.com/cappamplona/docs/biribilka8>

2006 *TFT pantaila lauak, azken berrikuntza*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 218, 42-45, 213-3687.

2006 *Su-gorrina eta pikartadura, sagarrondoaren etsai*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 220, 42-43, 213-3687.

2006 *Posizioak garrantzia hartu zueneko*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 220, 49-52, 213-3687.

2006 *The Baby, lehenengo ordenagailu elektronikoa*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 221, 56-57, 213-3687.

2006 *John Snow, epidemiologiaren aita*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 222, 54-55, 213-3687.

2006 *Pribatutasuna ziurtatzeko, kriptografia kuantikoa*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 223, 22-25, 213-3687.

2006 *Teleskopio optikoak. Begiluzearen tentaldia*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 223, 36-39, 213-3687.

2006 *Henri Moissanek Fluorra isolatu zuen*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 223, 56-57, 213-3687.

2006 *Aitor Artetxe: Asko ikasi dugu ipar Europako berotegietatik*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 224, 13-15, 213-3687.

2006 *Ikusten ez den materia*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 224, 32-37, 213-3687.

2006 *Animalia-ereduak*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 225, 22-25, 213-3687.

2006 *Analogikoa eta digitala*. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 225, 42-45, 213-3687.

2014 EGONALDIA NEKaTOENEAan

PLANGINTZA

- Urriaren 6an, astelehena
ONGI ETORRIA + lanaldiaren hasiera.
- Urriaren 8an, asteazkena
kazetarien aurreko agertzea.
- Urriaren 11an, larunbata
Denon Artean argitaletzeko arduradunekin bilkura.
- Urriaren 16an, osteguna:
Kalakan topaketa herritar literaturzaleekin,
basoerdi bat hartuko dugu tertulia ederrean.
- Urriaren 17an, ostirala
Sainte Marie (Donibane Lohitzune) ikastetxeko ikasleekin
topaketa. Tertulia eta idazketa tailerra. Jarduera hau EAC
euskarriaren modukoa izanen da, Hirigunearekin sinatutako
CLEAren barnean.
- Urriaren 18an, larunbata
IDAZNATURA, HipHipUrri programaren barnean.

EGONALDIAREN ONDOKO JARDUERAK

- ◆ Horrez gainera, Ziburuko Piarres Larzabal ikastetxeko ikasleekin lan-saioak egingo dira abendutik apirilera, Ste Marie ikastetxearen antzera, EEPren laguntzarekin aldi honetan.
- ◆ Hendaian Euskaraz hilabetean parte hartzea
- ◆ Mendi Zolanen erakusketaren inaugurazioko saioa.



Résidence d'artistes
Artisten egoitza

NEKaTOENEa

Kontaktuak

Aintzane Lasarte, Itsasbazterreko CPIE: alasarte@hendaye.com

Pantxoa Etchegoin, Euskal Kultur Erakundea: etchegoin@eke.org

